

ERAKUSKETAK

DIONISIO DE AZKUE (Aranaz Darras'enean).

Gaur, margo-erti gayetan —pintura gayetan, alegia— naspi-lla ta zalantza asko dago. Margolari geyenak buruari begira egiten dute beren lana, baña au ez da buru kontua bakarrik. Edertasunaren gozoak txastatu, ta edertasunaren berri, irudiz —margo irudiz— aditzera emateko, biotza bear. Biotz gartsua, begi zoliak, eta bai esku trebeak ere, edertasuna igeskorra da ta.

Doai guzti abek eta geyago, ba ditu ugari, Azkue Jaunak. Bere lur-irudiak, barrena lasaitu ta atsegifnez batetzen dute. Gipuzkoako mendi bazterrak, Arabako landa zabalak, Levanteko itxaso bareak, antxe daude, oyalean ezarrita, Dunixik, bere begi garbiz ikusi dituen bezelaxe. Burua —ez berea, ez urkoena— gafi- tiko jardunetan nekatu gabe, Dunixik badaki pintatzen. Eta ondo gero! Sisley'ek, Beruete'k, Pissarro'k, ez al zizkiguten Az- kuek baño lenago, lur bazter abek berak erakutsi? Ez. Abek, Dunixirenak dira. Berak maitasunez ikusi ta maitasunez sorta- raziak.

Danen artean, zein atsegifena? «Aizgorri, ego aizearekin»? «Salvatierrako San Jorge larraña»? «Arabako zelaya»? Ez da aukera erraza. Gaya berdiña ez izan arren, danetan egillearen arnasa bera ageri da. Egillearen arnasa! Ez ote da au, egizko eder-lan guztien ezaubide ta bizigaya?

ENRIKE ALBIZU (Salas Municipales de Arte).

Argia ta margoa —kolorea— ongi daki manaiatzten Irungo seme jator onek. Margolari trebea, zintzo sayatu ezkeru, urru- tira eldu ditekena. Gaurko gazteak, ez dituzte maite izaten, al-

dapa nekagarritzko bide luze ta latzak, baña oyek bakarrik eramaten dute gora. Albizuk, ba du aldaparik gogorrenetarako sa-soia. Bere emakumezko irudiak, guztiz atsegifiak zaizkigu. «Marilys», «Bordando» ta abar. Giza-irudi onak ba ditu ere. Lore sorta politak ere bai.

Gure iritziz, Albizu bezelako margolariak, ez dituzte beren lanen gayak geyegi aztertu bear. Buru azterketa oyek, eskuak lotu egiten bai dituzte. Albizurenak azkarrak dira ta ez lotuta egotekoak. Gureak berriz, bere lan ederrak ikusita, ez dute geldirik egon nai. Bijuakio beraz EGAN'en orrialdeen bitartez, txalo bero bat, Irungo margolari bikafñari.

JOSE MARIA GONZALEZ DE ETXABARRI (Salas Municipales de Arte).

«Peintre animalier». Ta ona gañera. Aberezkoak ez ezik, ba ditu lur-irudi politak ere: Valladolideko gari sallak, Burgos'ko El parral inguruko basoa, Candanchu aldeko elur zokoak.

Azken urte abetan, medikuai, onelako doai berezi bat sortu zaie, beren lanbidetik kanpoko gauza askotarako. Literatura ta pinturarako batez ere. Orain dala lau bost urte. Madrilleko sendalariak, ots aundiko erakusketa, esposizio bat egin zuten. Gonzalez de Etxabarri jauna sendagillea da. Baña ez bildur izan. Margolari ona degu. Zorionak!

J. M. L.

